

GURE BEZEROAK



Acorde Consulting-ek IFAM — FELICIANO ARANZÁBAL, S.A. enpresan lehenengo Berrikuntza Agenda osatu du

Acorde Consulting-ek, ISEB-ek bultzaturiko Innova ekimenaren barruan, bere lehen Berrikuntza Agenda osatu du. Ekimen honek ETE-en kudeaketan berrikuntza sistematikoa txertatzeko helburua du.

Lehenengo Agenda hau sarrailagintza artikulua fabrikatu eta merkaturatzen dituen enpresa batetan egin da, IFAM - Feliciano Aranzabal, S.A. hain zuzen ere. Arrasaten kokatuta dago, Frantzia eta Ingalaterran filial ditu eta 43 langileko lantaldeak osatzen du.



Eduardo Lahidalga IFAM-eko kudeatzailearen esanetan, Innova ekimenean parte hartzearen arrazoiak honako hauek izan dira: *“Berrikuntza gure konpetentziarengandik bereizten gaituen ezaugarria da eta, era berean, gure erakundearentzat balio erantsia suposatzen duenez, gure abantaila konpetitibo bihurtzen da. Berrikuntza ez bakarrik diseinuan baizik eta baita ere produktu bukatuan, enbalaketan eta merkatura hurbiltzeko egindako ahaleginetan; etorkizun hurbilean hobetu nahi ditugun alderdiak guztiak ere”.*

Prozesua ISEB-ek definitutako metodologia erabiliz egin da, oinarriko pausak honako hauek izanik:

- * Enpresaren deskribapen orokorra.
- * Negozio ezberdinen profilen analisia.
- * Berrikuntza profilaren analisia.
- * Lortu beharreko helburu eta jardunbideen hautaketa.
- * Jardunbide ezberdinekin lotuta dauden Berrikuntza zein Trebakuntza Proiektuak biltzen dituen jardura-plana.

Proiektu honetan IFAM-eko Zuzendaritza Talde osoak parte hartu du eta lanaldi-erdiko sei bilerako dedikazioa behar izan da programako fase ezberdinak burutu ahal izateko. Horretaz gain bilera horiek prestatzeko parte-hartzaileek dedikazio partikularra ere behar izan dute.

Eduardo Lahidalgaren esanetan, *“Innova metodologiaren bitartez egindako analisi eta hausnarketa prozesuak, gai garrantzitsu bati buruzko Zuzendaritza Taldeko iritzien bateratze-lana egitea ahalbidetu du. Izan ere, beste foro batzuetan, eguneroko premiazko gaiak ez digute uzten benetan garrantzitsuak diren gaien azterketa egiten”.*

Hausnarketa honen emaitza epe ertain eta luzeko helburuak dituen jardura-plana burutzea izan da. IFAM-eko kudeatzailearen aburuz *“helburu hauek aurtengo kudeaketa planean estrategikoak izango dira”.*

Proiektua Javier de la Peñak zuzendu du, mota honetako programak burutzeko ISEB-ek homologatutako aholkularietako bat hain zuzen ere.

Berrikuntza Agenda egitea doakoa da erakundearentzat eta jasoko dituen onuren artean hurrengo hauek nabarmen daitezke: berrikuntza alderdiak eta hauei ekiteko proiektuak identifikatzeko metodologia bat errotzea, eta Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta beste erakunde publikoek sustatutako dirulaguntzak eskatzerako orduan eraginkortasuna handitzea, enpresaren aurkezpen txartela hobetzea baita.

EBALUAZIO EUROPARRA 2008



Urte asko dira (agian gehiegi) europar mailako sarien deialdirako, ebaluatzaile modura, EFQM-rekin kolaboratzen hasi nintzenetik. Arrazoiak agerikoak dira: gure bezeroei eskaintzen dizkiegun zerbitzuetan “abangoardian” egon behar gara.

Aurten ebaluazio talde baten “senior” modura parte hartzen dut berriro ere. Berritasuna, “2005+” ikuspegiaren parte hartuko dudala da, geurean “memoriarik gabeko” ebaluazio bezala ezagutzen dena hain zuzen ere. Ikuspegi honek nolabaiteko eskarmentua eta, bisitari aurre egiteko zein txostena prestatzeko, ebaluatzaile taldearen trebetasuna handiagoa izatea eskatzen du. Artikulu hau Holandarako bidean nagoela idazten ari naiz. Lehen fase honetan egokitu zaidan ebaluatzaile taldea ezagutu, lan-taldea martxan jarri eta ebaluazio, aurretiko adostasunean, zein bisitaren prestaketan lan egingo dugu. Horretarako enpresaren ordezkari batekin lehen bilera bat izango dugu.


Aurreko edizioetan finalista izan den Europar ekialdeko enpresa bat ebaluatzea egokitu zaigu. Hurrengo kapituluetan esperientzia honen beste xehetasun batzuk azalduko ditut. Guretzat ahalegin hau ezinbestekoa da Acorde Consulting-ek EFQM eredu garatu nahi duten erakundeei zuzenduriko aholkularitza lanetan bere lidergo mantendu nahi badu.


Jose Antonio Calvo Maguregi




Ebaluatzaile taldeko kideak


BERRIAK


 Acorde Consulting-ek berrikuntzarekin duen konpromisoa agerian jartzen du Innobasque (Berrikuntzaren Euskal Agentzia) erakundearen bazkide eginez.

 Eva de Quevedo Euskal ita Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritu da Itourbask sarearen barruan dauden turismo bulegoen ziurtapena sustatzeko asmoz, Q Turistikoaren ezarpenean aholkularitza lana eginez. 2007 urtean zehar eta 2008-ko martxora arte, Acorde Consulting-en laguntzari esker, bost turismo informazio bulegok eta bi “Convention Boureaux”-ek lortu dute ziurtapena.

HURRENGO IKASTARROAK

 **Prozesuen kudeaketarantz:** apirila 9, 16 eta 23 Gasteizen (Industri Ingeniarren Elkargo Ofiziala). Irakaslea: José Antonio Calvo. Antolatzailea: Euskal ita.

 **Mapa estrategiko eta aginte taulen eraikuntza eta hedapena:** ekainak 10 Bilbon (APD). Irakaslea: José Antonio Calvo. Antolatzailea: APD.

 **Q turistikoa hotel eta jatetxeetan:** maiatzak 28, ekainak 4, 11 eta 18 Bilbon (APD). Irakaslea: Eva de Quevedo. Antolatzailea: Euskal ita.

